

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Traumaren osteko estresa, estresaren osteko trauma

Kataluniak guretzat harridura eta misterio iturri izaten segitzen du, batzuetan onerako eta beste batzuetan txarrerako, «*procés*»-a ustekabeko bidetik (Artur Mas buru) abiatu eta hamarkada bat geroago. Nahasgarria eta etsigarria egin zaigu erreferendumaren bosgarren urteurrena, benetako herri matxinada izan zena, ERCren eta Junts-en arteko borroka politikoaren ondorioz erabat itzalita geratu izana. Izan ere, U-1eko lorpen historiko gisa blindatuta egon beharko litzateke, gutxienez belaunaldi baten-tzako kapitala eta historia osorako ondasuna baita.

Kataluniako eta Euskal Herriko idiosinkrasiaren arteko aldea oso nabarmena iruditu zitzaidan orduan, eta orain ere berdin. Ziur aski. Euskal Herrian urteurren hori ez zen zikinduko, edo xehetasun sinboliko bat ematearren, hautetson-tzi haiek museoetako beira-arasetan izango genituzke gaur egun. Baina segurua da, era berean, ez dugula sekula 2017ko erreferenduma ekarri zuen ekintza-batasunik lortu.

Horrez gain, litekeena da hango independentziarik ezaren ondorengo frustrazioan hemen gure zauriak lehenago itxi izana. ERC eta Juntsen arteko borroka amaiezina trauma osteko estresaren ondorio da, denboran gehiegi luzatzen ari dena. Amaitzen denean ikusiko da zein neurritaraino dauden alde estrategiko gaundiezinak, orain dagoen talka soilik taktikoa baita, koiunturala: Beñat Zalduak orrialde hauetan azaldu duenez, ez da sinesgarria Juntsek independentzia erreferendumaren emaitzarekin bakarrik gauza daitekeela benetan uste izatea, eta ez da sinesgarria ERCK Estatuarekin adostutako kontsulta baterako akordio batera iritsi daitekeela uste izatea.

Euskal Herria ez dagoela Kataluniari lezioak emateko moduan erantsi du Zaldua kideak, Katalunia 2017an Euskal Herriari lezioak emateko ez zegoen be-

zala. Han trauma osteko sindrome bat badago, hemen alderantzizkoari buruz teorizatu da: hamarkadetako konfrontazio armatuaren estresaren ondorengo traumaz, hain zuzen ere. Inoiz ez zait azalpen oso sendoa iruditu, baina izatekotan, Aietetik 2016ra arte baliozkoa izan daiteke (bosturteko bat, demagun). Desestresamenduaren aldi logikoa amaitu da, baina bidean beste desmobilizazio-faktore batzuk agertu dira: batzuk globalak, teknologia berrietatik eratorriak, eta beste batzuk, hemengoak baino ez direnak, propioak, aztertu beharrekoak.

Hamarkada bat baino gehiagoko ibilbide honetan, egia al da trenak pasatu direla, eskoziarra edo katalana, esaterako? Ez dut uste. Lehenik eta behin, ez bata ez bestea ez direlako iritsi Estatu bat lortzeko azken

ERC eta Juntsen arteko borroka amaiezina trauma osteko estresaren ondorio da, denboran gehiegi luzatzen ari dena. Amaitutakoan ikusiko da zein neurritaraino dauden alde estrategiko gaundiezinak

geltokira, eta, beraz, ezin dugu imajinatu horrek zer eragin izango zuen Euskal Herrian. Eta bigarrenik, bi trenak berriro igaroko direlako, eta beste batzuk ere bai.

Garrantzitsuena, beraz, Katalunia eta Euskal Herria nola kokatuko diren da, aukera berriak bultzatzeko zein besteek irekiko dituztenak baliatzeko. Eta argi dago indartsuagoak izango direla elkarrekin egiten badute eta ez bananduta, orain artean gertatu ohi den bezala.

Bideak punturen batean gurutzatu beharko dira, Kataluniako trauma osteko estresaren eta Euskal Herriko estres osteko traumaren arteko punturen batean. •